

Eraldaketan, 70.000 euro inbertitu dira**EROSKI-K TOKIKO SASOIKO PRODUKTUA INDARTU DU
BILBON, INDAUTXU PLAZAKO SUPERMERKATUA
ERALDATUTA**

- **Saltokiak arreta pertsonalizatua indartu du, langilea jarri baitu harategian**
- **Supermerkatuak elikagai ekologikoen eta dietetikoek atala jarri du, eta bertan, produktu sail handi bat salgai.**
- **EROSKI liderra da tokiko produktuen salmentan: euskal ekoizleen 9.000 produktu inguru dauzka**

Bilbo, 2015eko abuztuaren 20a.- [EROSKI](#) eraldatu egin du Bilboko Indautxu plazaren azpian dagoen merkataritza guneko EROSKI Center supermerkatua. Hala, saltokia egokitu egin da Zurekin eredu komertzial berrira, bezeroei tratu pertsonalizatuagoa emateko eta, era berean, tokiko produktuen eta sasoiko produktu freskoen salmenta indartu, elikadura osasungarria sustatu eta eguneroko erosketan aurrezteko modu berriak eskaintzeko. 70.000 euro inbertitu ditu denda eraberritzen.

Orain dela hilabete bat hasi ziren lanean, eta freskoen eremuan jarri dute ardatza, hura goitik behera berrituta, tokiko sasoiko produktuen eskaintza zabalari balioa emateko. Nabarmenezkoa da frutetan eta berduetan dagoen eskaintza (Arrieta eta Imanol), eta orobat okindegian dagoena (Confiteria de Bilbao); gainera, harategian, Eusko Labelen puska bikainak eta Gesalagaren haragia, Ezkurtxerriren txerriak eta Thateren saltxitxak ditu. *"EROSKI dendak beren inguruan ekoizten diren jangaiak merkaturatzeko plataforma irekiak dira. Konpromiso horren bidez, gastronomiaren aniztasunaren alde egiten dugu, eta, hala berean, tokiko nekazaritzako elikagaien sektorearen iraupenaren eta bertako aniztasunaren alde, hori egitea eskualdearen pizgarri jardutea baita"*, azaldu du Arantza Pedrerok, supermerkatuko dendaburuak.

"Lanak egin bitartean, bezeroari ahalik eta trabarik txikiena egiten saiatu gara, lan eremuak hesituta. Eskerrak eman nahi dizkiegu, beti bezala etorri baitira erostera", azaldu du Arantza Pedrerok. *"Gainera, eredu berriaren inguruan azaldu duten interesa eta egin dituzten galderak direla medio, gogotsuago heldu diogu prozesuari"*. Orain arte eraldatu diren dendei erreparatuta, ikusten da %6 inguru igo dela salmenta eta %10 freskoen produktuetan, hau da, Zurekin dendaren bihotz den arloan, lehen urte honetan.

Berrikuntzen artean, nabarmenezkoa da atal guztietan egin dela arreta pertsonalizatuaren alde. *"Saltokia arreta ematen hasi da berriz harategian. Gainera, bezeroari ematen zaion arreta aldatuz joango da EROSKI Klubaren txartelaren bitartez egindako eskaintzekin eta promozioekin; dagoeneko, Euskal Autonomia Erkidegoko*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
OSCAR GONZALEZ URIARTE

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

EDURNE IZQUIERDO
ZIORTZA BERISTAIN

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es

salmenten %85 biltzen ditu", esan du dendaburuak. Saltokian 30 langile baino gehiago ari dira.

Supermerkatu berrituak azken berrikuntza teknologikoak ere badakartza efizientzia energetikoa hobetu eta ingurumenean duen eragina gutxitzeko; esaterako, elikagaiak kontserbatzeko hozte altzarien ixteko sistema.

Liderra tokiko produktuetan

EROSKI liderra da tokiko produktuen salmentan: euskal ekoizleen 9.000 produktu inguru dauzka. Iaz, 2.000 euskal hornitzaileekin baino gehiagorekin aritu zen kooperatiba lanean, eta 600 milioi euro baino gehiagoren erosketak egin zizkien.

Kooperatibak eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuten 2013an, tokiko elikagaien sektorea bultzatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen ehunaren aniztasunari eusteko.

Elikadura osasungarriaren promozioa

EROSKI lan handia egiten ari da elikadura osasungarriaren alde; horregatik jarri du "Elikadura Ekologikoa eta Dietetikoa" atala, alde batean produktu hoztuak dituela. Bestalde, saltokiak zabaldu egin du, era berean, elikagaiekiko intolerantziak dituztenen eta beren elikadurarekin sentsibilizatuta dauden produktu sorta; besteren artean, glutenik gabeko elikagaiak, azukre gutxikoak, gatz gutxikoak...

Saltoki berritu honen ateak 1987an ireki zituzten. Bizkaiko hiriburuan, EROSKI beste 33 supermerkatu ditu, hipermerkatu bat, hamar EROSKI Bidai agentzia, Forum Sport kirol materialerako denda bat eta hamalau If lurrindegia.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
OSCAR GONZALEZ URIARTE

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

EDURNE IZQUIERDO
ZIORTZA BERISTAIN

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es